

PRENTSA DEIALDIA

Gaia:

2017ko txotx irekiera. XXIV. Sagardo Berriaren Eguna 2017.

Data: 2017ko urtarrilak 11.

Ordua: 12:00.

Tokia:

Prentsaurrekoa:

Sagardoetxea, Euskal Sagardoaren Museoa
Kale Nagusia, 48
20115 Astigarraga

Txotx irekiera:

Zapiain Sagardotegia
Kale Nagusia, 96
20115 Astigarraga

Deskribapena:

Sagardoaren Lurraldeak antolatuta, urtarrilaren 11ean XXIV. Sagardo Berriaren Eguna 2017 ospatuko dugu txotx denboraldi berriari hasiera emateko. Aurtengo gonbidatua **ENEKO ATXA sukaldaria** izango da.

Egitaraua:

11:30-12:00: Komunikabideei akreditazioak emango zaizkie **Sagardoetxean**.

12:00: Prentsaurrekoa Sagardoetxean. Bertan azalduko dira 2016ko uztaren ezaugarri nagusiak, sagarraren eta sagardo berriaren ezaugarriak eta sagardoaren munduko gertaera garrantzitsuenak.

12:45: Eneko Atxak **sagarrondo** bat landatuko du Sagardoetxeako sagastian.

13:30: Txalapartarien deiarekin batera sagar dantza dantzatuko da, eta ondoren, sagardogileek Eneko Atxa soka dantzan parte hartzera gonbidatuko dute lehen kupela irekitzeko.

13:45: Zapiain sagardotegian "Gure Sagardo Berria" oihu eginda **lehen kupela irekiko** du Eneko Atxak eta honekin batera 2017ko txotx denboraldi berriari hasiera emango zaio. Ondoren, denboraldiko sagardotegiko lehenengo menua dastatuko da.

Arratsaldean, Txotx Berri Herrikoia 2017:

18:30: Bakailao tortila tailerra familientzat.

19:30-21:30: Pintxo eta sagardo dastaketa.

20:30: Txotx irekiera herrikoia.

Astigarragako tabernek sagardo berria eskainiko dute.

Asistentzia baieztatzea beharrezkoa da akreditazioak pertsonalizatu ahal izateko. Akreditazioak Sagardoetxea Museoan banatuko dira 11:30etatik 12:30etara bitartean eta Zapiain sagardotegian 13:00etatik 13:30etara bitartean.

Bestalde, XXIV. Sagardo Berriaren Eguneke protagonistei elkarrizketak egiteko bi gune ezarriko dira: bata, Sagardoetxea Museoan sagarrondoa landatu ostean, eta bestea, Zapiain sagardotegian txotx irekieraren ostean. Elkarrizketen kudeaketa hobetzeko asmoz, **elkarrizketak egiteko tartea baieztatzea** eskatzen da.

Kontuan izan aurtien ere 13:30etan emango zaiola hasiera sagardotegian egingo den irekierari **txotx irekierako protokoloarekin**. Sagardoaren Lurraldeako antolakuntza taldea bertan izango da argibide gehiago emateko.

Informazio gehiagorako:

Leire Alkorta (Prentsa arduraduna)

Tel: 943 550 575

e-maila: info@sagardoarenlurraldea.com